

haur hezkuntzako TAILERRAK

Irakasgaiak:

- Ahozko Adierazpenerako Baliabideen Tailerra
- Gizarte Ingurunean Esperimentatzeko Tailerra
- Gorputza, Musika eta Plastika Adierazpenerako Baliabideen Tailerra.
- Matematika Adierazpenerako eta Irudikapenerako Baliabideen Tailerra.
- Zientzia Tailerrak Haur Hezkuntzan.

Minorreko konpetentziak

- Diziplinartekotasuna curriculum-arloetan
- Ikaskuntza-testuinguruak eta dibertsitatea
- Lan autonomia eta talde-lana
- Hezkuntzan esku hartzeko diseinua: hobetzeko proposamena
- Hezkuntza ikerketa



Adibide batzuk:



Gorputz, Musika eta Plastika Adierazpenerako Baliabideen Tailerra.

- Oihane Otaegi Garmendia-
- Gotzon Ibarretxe Txakartegi-
- Lurdes Sagarzazu Unanue-
- Olaia Miranda Berasategi-

Haurraren gorputza eta jolas librea abiapuntu hartuta, psikomotrizitatea, ipuin musikala zein sormen artistikoa landuko dira irakasgai honetan, beti ere modu praktiko eta aplikagarri batean.

Talde lana zein bakarkakoa erabiliko dugu eta, ebaluatzeko unean, hiru arloak biltzen dituen porfolioa osatu beharko du ikasle bakoitzak.



- Matematika Adierazpenerako eta Irudikapenerako Baliabideen Tailerra.

-Maite Arraiza Aramendia-

1. Matematika lantzeko dauden baliabideak ezagutzea eta aztertzea:

a) inguruko ohiko materialak, eta

b) material egituratuak edo matematika lantzeko bereziki sortutakoak.

2. Matematika lantzeko material didaktikoak eraikitzea

Ikasturtean zehar ikasleak egin behar duena:

- Ikusitako material didaktikoen fitxategi bat.
- Bost material didaktiko eraiki

Ebaluaketarako:

- Ikasturtean zehar egindakoa
- Bakarkako froga idatzia



Zientzia-lantegia Haur Hezkuntzan


Irakasgai hau praktikotasun handikoa da, horretarako ikasleen autonomia eta praktikaren gaineko hausnarketa egitea sustatuko da. Praktika errealak egitera bultzatuko da unibertsitate-eskola baten ekimenaren barruan, non Haur Hezkuntzako haurren parte-hartzea izango da irakasgai honetako baliabiderik esanguratsuena. Horrek Irakaskuntza- ikaskuntza prozesu aktibo bat ahalbidetzen du: tailerren prestaketa eta frogaketa, eta honen inguruko hausnarketa.

ikastetxeak gurean



-Josu Sanz Alonso-

Zientzia esperimentalak Haur Hezkuntzan landu daitezke eta landu behar dira



-Gorka Ormazuri Alkiza-



Ahozko Adierazpenerako Balibideen Tailerra

Ikasgai honetan, minorreko gainontzekoekin lankidetzan, alde ludiko eta sortzailetik, hizkuntza-adierazpenaren garapenarekin lotutako hezkuntza-baliabide espezifikoak ezagutzea, hautatzea, sortzea, egokitzea, erabiltzea eta ebaluatzea izango da helburu. Bide horretan ikusiko dira ipuinak, aho korapiloak, asmakizunak, poematxoak, kantak, dramatizazioa eta bestelako hizkuntza jolasak.

Gizarte Ingurunean Esperimentatzeko Tailerra

-Berta Echeberria Arquero-

Orokorrean graduan landu diren zenbait kontzepturen sakonketa edo oso gainetik landu ditugun zenbait gai edo ideiekin osatu nahi dugun formakuntza: baliabideak, irakasleak garatu behar dituen gizarte trebetasunak eta balioren tratamendua.

Metodologia aldetik ahalik eta modu praktikoenean garatu nahi ditugu saioak, metodologia eraginkorrek erabiliz, informazioa bilatzen, irteerak eginez (ekipamenduren bat ezagutzeko edo eskola konkretu baten dinamika) edota profesionalak ekartzen horien esperientziak azaltzeko.



Eskerrik asko

Zalantzak:

Administratiboak, zuzendaritzan

Irakasgaiari dasgozkienak, irakasleekin

Minorrenak, koordinatzailearekin:

Berta Echeberria Arquero berta.echeberria@ehu.eus